

Urtarrilean, Judit Muñoz ikerlaria Texasko Unibertsitatera (AEB) joango da urte birako



Abadiño • Eusko Jaurlaritzaren hiru urterako bekaren barruan, Judit Muñoz ikerlari abadiñarra AEBetara joango da urte birako. Muñoz doktoretza ondoko ikerlaria da BCAM Matematika Aplikatuen Euskal Zentroan. Vicent Caselles saria ere jaso du aurten, Espainiar Estatu-ko garrantzitsuenetariko bat. Ekuazio diferentzial partzialen arloan lan egiten du. • 6

Emantzipaziorako irtenbide bat etxebizitza partekatzea denean

Elorrioko eta Durangoko pisukideen esperientziak



Ainhoa Iraolak eta Esther Morenok etxebizitza partekatzen dute Eloorrion. Irailean ekin zioten elkarregaz bizitzeari. Bolada batean atzerrian bizi izandakoak dira biak, eta eskualdera bueltatu direnean zailtasunak topatu dituzte emantzipatzeko.



Peru Bilbaok eta Unai Uribek Durangoko etxebizitza bat banatzen dute. Badira urte batzuk elkarregaz bizi dira. Gauza batzuk partekatu arren, modu autonomoan funtzionatzen dute. Etxea partekatzea bizitzeko beste modutzat ulertzen dute.



Martxoaren 14an egingo dute Durangoko trenbide zaharreko lurretarako aurreikusitako proiektuaren (PERI 1 Ferrocarril) inguruko herri galdeketa. Udalak eguazteneko osoko bilkuran onartu zituen galdeketerako data eta protokoloa. Erabaki plataformak “inplikatzeko ordua” dela gogoratu du. • 2

Galdeketak badu eguna:

martxoak 14

4-ALKI

Dekorazioa eta berriztatze integralak

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744



Durangarrek gaur egun indarrean dagoen PERI 1 Ferrocarril proiektuaren geroaz bozkatuko dute.

Kale ala bale egiteko eguna, finkatuta

Durango Udalak martxoaren 14an egingo du tren geltoki zaharraren geroari buruzko galdeketa. Durangarrek PERI 1 Ferrocarril proiektuaren inguruko iritzia emango dute. Erabaki plataformak parte hartzera deitu ditu herritarrak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hasi da atzera-kontaketa. Durango Udalak martxoaren 14an egingo du tren geltoki zaharraren inguruko herri galdeketa. Eta horregaz, durangarrek erabakiko dute indarrean dagoen PERI 1 Ferrocarril proiektuagaz zer gertatzen den. Indarrean dagoen proiektua baztertzea da aukeratariko bat. Dagoezagaz aurrera jarraitzea litzateke bestea.

Asteon egindako osoko bilkuran, Durango udalbatzak argi berdea eman dio galdeketa araudiarri. Horren aurrean, Erabaki plataformak galdeketa parte hartzera deitu ditu herritarrak. Azaldu duenez, jada "atzean geratu dira trabak, sinadurak galtzea, de-

kretukada, eraginkorrak ez diren batzordeak, informazio falta...". Herritarrak parte hartzera animatu dituzte. "Inplikatzeko ordua da, eta, horregaitik, herritarrak animatzen ditugu ekimenetan eta egingo den informazio kanpainan aktiboki parte hartzera, proiektuari eta haren ondorioei buruzko zalantzak argitzeko eta aukera bat edo bestea bozkatzerakoan kontuan hartu beharreko aspektuak mahai gainean ipintzeko", diote plataformako kideek prentsa oharrean.

Eztabaida udalbatzan

Herri galdeketa araudia EAJren, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin onartu dute asteon. PSE-EE abstentitu egin

da, galdeketa bere egin arren araudiko puntu batzuekin konforme ez dagoela eta.

Sara Oveja jeltzalearen iritziz, trenbide zaharreko orubeak parekorik ez duen proiektua eskaintzen du. "Bere sasoian galdeketa alde egin genuen eta hala egiten dugu orain ere. Daukan hedapenagaitik eta daukan kokapenagaitik proiektu urbanistiko berdingabea da. Oso interes handikoa Durangorentzat. Galdeketa berme guztiekin egin dadin eskatzen dugu", adierazi du Ovejak. Bestalde, EH Bilduk Erabaki plataformaren mandatuari erantzun beharra azpimarratu du: "Galdeketa ez da loteslea juridikoki, baina bai politikoki. Gobernu taldearentzat loteslea izango da, baie-

tzak zein ezetzak irten. Erabaki plataformaren mandatua hori da", azaldu du Aritz Bravok.

Herriaren Eskubideak herritarren berba entzuteko aukeraren garrantzia azpimarratu du. Hala esan du Mikel Uriguena zinegotziak. "Ez da alderdikerietarako unea. Herritarrek bozkatzeko momentua da. Horixe da garrantzitsuenak. "Azkenik, Jesica Ruizek PSE-EEren abstentzioa arrazoitu du. "Galdeketa ez da loteslea eta araudiak ez du zehazten herritarren parte-hartzeari lotutako kopururik. Araudiaren puntu batzuekin ez gatoz bat eta abstentitu egingo gara", esan du zinegotziak osoko bilkuran.

Durango egiten den lehenengo herri galdeketa izango da.

Gakoak

1

Martxoak 14

Udaberriko oporraldia edo Aste Santua ailegatu baino asteburu bi lehenago egingo da herri galdeketa. Data horren aurreko aste bietan kanpaina egiteko aukera egongo da, ohiko hauteskundeekin egiten den legez. Martxoaren 12an amaituko da kanpaina eta 13a hausnarketa eguna izango da.

2

Landako Gunea

Botoa emateko toki bakarra egongo da: Landako Erakustazoka. Ez da egongo aukerarik posta bidezko botoa emateko.

3

Ohiko errolda

Durango erroldatuta egon eta 18 urte eginda dituzten herritarrek eman ahalko dute botoa. Hauxe da bozkatzeko ordutegia: 9:00etatik 20:00etara.

4

Gutxienezkorik, ez

Galdeketa ez denez juridikoki loteslea, araudiak ez du markatzen emaitzaren zilegitasuna baldintzatzeko gutxienezko parte-hartze kopururik

5

Hauteskunde batzordeagaz

Durango Udaleko teknikariak ohiko hauteskunde funtzionamendua "klonatu" gura izan dute herri galdeketa. Horregaitik, hauteskunde batzordeetan egon ohi diren kideek bermatuko dute galdeketa egokitasuna.

Erreakzioak



“**Proiektu urbanistiko berdingabea da, oso interes handikoa Durangorentzat. Galdeketa bermeekin egitea gura dugu**”

SARA OVEJA (EAJ)

“**Ez da alderdikerien unea. Herritarrek bozkatzeko momentua da. Horixe da garrantzitsuenak**”

MIKEL URIGUENA (Herriaren Eskubidea)

“**Galdeketa ez da juridikoki loteslea, baina bai politikoki. Erabaki plataformaren mandatua hori da**”

ARITZ BRAVO (EH Bildu)

“**Galdeketa ez da loteslea eta araudiak ez du herritarren parte-hartzeari lotutako kopururik zehazten**”

JESICA RUIZ (PSE-EE)

Durangoko ez-jaien lehenengo asteburuan "normaltasuna" nagusitu da eta bigarrenetan ere "arduraz" jokatzeko eskatu du udalak

Ima Garrastatxu Durangoko alkateak "erantzukizunez" jokatu izana eskertu die herritarrei, ostalariei zein bestelako eragileei

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Udaleko gobernu taldeak Durango-ko ez-jaien lehenengo asteburuko balorazioa egin du. Orokorrean, "normaltasuna" nagusitu zela azpimarratu du Ima Garrastatxu alkateak eta herritarrei, ostalariei zein bestelako eragileei "erantzukizunez" jokatu izana eta "lankidetzarako" erakutsi duten borondatea "eskertu" die.

Hala ere, oraindino beste aste-buru bat geratzen dela gogoratu eta "erantzukizunez" jokatzera deitu du. "Seguru gaude durangarrek arduraz jokatuko dutela, baina gogoratu gura dugu osasuna dela lehen-tasuna", azaldu du Garrastatxuk.

Zapatuan sarbide batzuk itxita

Ez-jaiak irausten duten bitartean, segurtasun protokolo bat dago indarrean. Zapatu iluntzean, 21:30 inguruan, protokolo hori partzialki aktibatu eta Durangorako sarbide batzuk itxi zituzten, jende mugimendua nabaritu zutelako. Arrisku posibleak saihesteko neurria izan

zen, udal arduradunen esanetan. "Gurago izan genuen zuhurtziaz jokatu", adierazi du Garrastatxuk. Durangora zetozenak sarrera konkretu batzuetatik bideratzeak herrira etorritako jende kopuruaren kontrola eramatea errazten duela azpimarratu du. Julian Rios alkateordeak gaineratu du badakitela horrelako neurriek "eragozpenak" sortu ditzaketena herritarrengan, baina beste ezeren gainetik "osasuna" lehenesten dutela.

Kale-zurruta ekiditeko neurria

Barikuan kale-zurruta egiteko ahal-eginak egon ziren San Ana eta Andra Mariko aterpeetan, eta, hori ekiditeko, sistema berri bat erabili zuten: gunehorietako zoruak urez busti zuten, bertan jesartzeko aukera saihesteko. Orokorrean, herrian kale-zurruterako proposak izan daitezkeen beste hainbat gunehorietan dituzte asteburuan. Sistema horren balorazio "oso positiboa" egin du Rios alkateordeak eta etorkizunera begira ere erreminta erabilgarria dela deritzo.



Julian Rios Durangoko alkateordea eta Ima Garrastatxu alkatea, egunean eskainitako prentsaurrekoan.

**Zorua urez bustea aurrera
begirako erreminta
erabilgarri ikusten du Rios alkateordeak**

Lankidetzaz

Ertzaintza eta udaltzaingoa koordinatuta aritu dira lanean. Udaltzaingoa, batez ere, herrigunea zaintzen zentratu zen eta, besteak beste, tabernen itxeko ordua zaindu zuen. Herritar batzuekin "informazio lana" ere egin zuten, segurtasun

arauren bat hausten egon zitekeelako uste zutenean, Riosen arabera.

Tabernak itxi eta gero, gazteen lokal bateko dozena bat lagun identifikatu zituen udaltzaingoa, ezarritako itxiera ordua ez errespetatzeagatik.

Zure amets setako Mercedes, inoiz baino gertuago.

Aprobetxatu Renove Plana 2020 eta eraman ezazu dena barne.

Sentsazio berriak estreinatzea inoiz ez da hain erraza izan, Mercedes-Benz-ek duen konpaktu sorta ikaragarriari esker. Ezagutu Clase A, Clase A Sedan, Clase B, CLA Coupe eta CLA Shooting Brake modeloak eta lortu, **2020ko abenduaren 31ra arte, Renove Planak eskaintzen dizkizun laguntzak. 2020.** Eraman ezazu zeurea Mercedes-Benz Renting-i esker eta utzi amets egiteari eta hasi gozatzen.

Estreinu zeure Mercedes-Benz berria:

- Lortu 800€-ko laguntza*.
- Renting hileko kuota finkoa 3 edo 4 urtetan zehar.
- Arrisku orotako aseguru eta mantentzea barne.
- Ordezko ibilgailua, gehienez 10 egunetan**.



Mercedes-Benz

Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala

Retuerto kalea 38.

48903 BARAKALDO.

Tel.: 94 497 00 74.

www.mercedes-benz-aguinaga.es

Borua enpresa-parkea, 2A-3 partz.

48340 ZORNOTZA.

Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra, z/g.

48014 BILBO (DEUSTU)

Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre kalea, 90.

48940 LEIOA.

Tel.: 94 463 11 75.

* Gobernuaren Renove Plana 2020 C etiketa eta A efizientzia duten ibilgailuentzat: 800€-ko laguntza, gutxienez 10 urteko ibilgailua emanez gero, txatarra bihurtzeko, ibilgailuak IAT indarrean izatea eta ibilgailuaren titularrak bezeroa izatea gutxienez urtebetez. ** Polizaren baldintzei lotuta dago. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz-es-en.



Monopoly partida noiz amaituko zain

Durangaldeko gazteek zailtasuna dute gurasoen habiatik irteteko. Emantzipazioaren arazoa aspalditik dator eta ez dirudi akabera argirik duenik. ANBOTO Durangoko eta Elorrioko lau pisukidegaz batu da gaiaz berba egiteko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Gazteek gurasoen etxetik emantzipatzeko duten zailtasuna Monopoly partidetan gertatzen denaren antzekoa da: ez da sekula amaitzen. Sartu lapiko berean lan kontratu ezegonkor bat eta soldata baxua, eta ipini guztia erosketara bideratutako merkatuaren gainean egosten. Hortxe emaitza: gurasoen etxetik irten gura eta ezinaren arteko porrusalda.

ANBOTO Durangoko eta Elorrioko lau gaztegaz batu da gaiaz berba egiteko. Esther Morenok eta Ainhoa Iraolak etxebizitza partekatzen dute Elorrioren. Unai Uribek eta Peru Bilbaok, Durangon. Eta laurak datoz bat puntu batean: gurasoen etxetik irteteko zailtasunak lotura zuzena du lan kontratu ezegonkorrekin eta prekaritateagaz. "Arazo nagusia arlo ekonomikoa da. Gurasoen etxetik

teagaz bat egiten. Iraolak dioenez, diru laguntzak urtero irteten dira, baina oso gatxa da horiek jasotzeko baldintzak betetzea. "Kontratu egonkor bat izatea eskatzen zaigu eta hori gatxa da gehienetan. Prekaritatea bizi dugu", azpimarratu du.

Atzerrian, hobeto

Laurak Euskal Herritik kanpora bizi izandakoak dira, bolada batean. Diotenez, atzerrian hobeto antolatuta daude etxebizitza politikak. "Belfasten 550 euro ordaintzen genituen hiru lagunaren artean. Akaso hemengoak baino eskasagoak izango ziren etxeak, baina nabarmen hobea zen poltsikorako", dio Morenok. "Finlandian ere hobea da egoera. Logelak unibertsitateak berak bilatzen zizkigun. 190 euro ordaintzen genituen", gaineratu du Iraolak.

Baina zailtasunei aurre egin eta gero, laurak daude pozik egungo egoeragaz. "Zortekoak gara. Durangoko beste etxebizitza batzuetan ikusten denagaz konparatuta, pisu hau oso ondo dago prezioz. Pisukide bila gabiltza eta denek dioskue Durangon oso garesti daudela pisuak", azaldu du, esaterako, Bilbaok.

Erostea, "pentsaezina"

Etxea alokatzea nahikoa aukera gatxa bada, erostea "pentsaezina" da lau gazteentzat. Oraina hain ezengokorra dutenez, etorkizuna ere modu horretan irudikatzen dute. "Etorkizuna ez dakit zelakoa izango den. Ez dakit hemen egongo naizen, zelan egongo naizen. Ez dut neure burua hipoteka bat eskatzen ikusten", dio Bilbaok.

Jokatzea eskatu ez duten Monopoly partida da haiena. Eta, oraingoz, amaiera argirik bakoa.

Ainhoa Iraola eta Esther Moreno

ELORRIO

Moreno eta Iraola (Elorrio, 1993) kuadrilla berekoak dira. Ikasketak direla-eta, atzerrian bizi izandakoak dira bolada batean, baina behin Durangaldera bueltatuta gatx egin zaie etxea topatzea. Irailean etxebizitza bat topatu zuten Elorrioren, eta elkarregaz bizi dira harrezkero. Diseinu grafikoan lan egiten du Iraolak. Magisteritza ikasi du Morenok.

Peru Bilbao eta Unai Uribe

DURANGO

1991n jaio zen Bilbao. 1986an Uribe. Lehenengoa doktoretza egiten dabil unibertsitatean. Hezitzailea eta AEK-ko irakaslea da bigarrena. Uribek hainbat urte eman ditu Gasteizen zein Berlinen bizitzen. Bizimodu partekatuen aldeko jarrera du. Bilbaok orain hiru urte lortu zuen gurasoengandik emantzipatzea. Lehenengoz dabil etxea partekatzen.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko urriaren 16a
18. urtea - 824. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Ezin bagara bakarrik emantzipatu, emantzipatu gaitezen elkarrekin

Durangaldeko gazteriak etxebizitza partekatuan topatu du emantzipaziorako bidea. Zenbait pisukideren artean etxea alokatzeak bizimodu aberasgarria dakarrela diote

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA
Afaria prestatzeari ekin dio Unai Uribek. Olio txorrostada bat bota du zartaginera. Porru bat atera du. Txikitu, eta surtara bota du. Pisukide guztientzat afaria prestatzen ote dabil? Ez. Uribe eta Peru Bilbao teiltupe berean bizi diren arren, ez dute den-dena batera egiten. Bilbao geroago prestatuko du bere afaria. Orain astia hartu gura du unibertsitateko lanagaz jarraitzeko. Eszena hori izan daiteke, gutxi gorabehera, pisukideekin partekatutako etxebizitza baten errealitatea. Gastuak banatzen dira. Elkarbizitza dago. Baina ez dago zertan dena batera egin. Bakoitzak bere autonomia du. Iraolaren eta Morenoren kasua ere antzekoa da. "Normalean batera afaltzen dugu, baina bakoitzak bere lan ordutegia du eta bere kabuz moldatzen da", azaldu du Iraolak.

Norbere kabuz bakarrik ezin emantzipatuta, Durangaldeko hainbat gaztek partekatutako bizimodu batean topatu dute irtenbidea. Bizimodua partekatzeak bizimodu aberasgarria eskaintzen duela diote. Eta, noski, gastuak ere nabarmen jaisten dira. Unai Uribek, gainera, azaldu du bere kasuan erabaki bat dela hala bizitzea. "Ni elkarbizitzan bizi banaiz, hala gura dudalako da. Bizitzeko modu komunean sinesten dut. Oso aberasgarria delakoan nago. Karga ekonomikoak jaisten dira etxea partekatuta, noski. Baina horretaz gainera, ikuspegi kontua da. Beharrian amankomunei dagozkien ardurak partekatzea elkarbizitza-

ren oinarrietariko bat da. Jendea dago, bisitak dituzu. Hala ikusten dut nik behintzat. Ideia kontua da", azaldu du.

Topikoak apurtzen
Gazteriaren gaineko mito asko daude gizarteratuta. Horietariko asko, gainera, ezkorrak dira. Pandemian zehar ere hainbat bider ikusi da gazteenak seinalatzeke joera. Gazteria ardurabako lez islatu da. Pisukide etxebizitza bati buruz esaten direnek ere, zenbat dute egiatik? ANBOTOk pisukide bizitzari lotutako topikoak aztertu ditu lau gazteen ahotik. Honakoak dira:

1. TOPIKOA
"Pisukideen etxebizitza batean parrandak baino ez dira egiten"

Peru Bilbao: Gure etxean behintzat ez!
Unai Uribe: Asko entzuten den klixex bat da. Egon daitezke hala-koak, jakina, baina iruditzen zait adinagaz eduki dezakeela zerikusia. Ikasleen artean partekatutako etxebizitzetan, akaso, horrelako gehiago izan daitezke.
Esther Moreno: Tira, 'parrandak baino ez', ez nuke esango. Baina parranda batzuk bai!
Ainhoa Iraola: Esther eta biok oso parrandazaleak gara, baina hilabete inguru daramagu hemen bizitzen eta ez dugu gauza handirik egin. Arduratsuak gara.

2. TOPIKOA
"Pisukideen etxebizitza batean, elikadura txarragoa da"

P.B.: Ez! Hori beste topiko bat da. Hori norberaren arabera da. Ondo elikatu gura baduzu, lortuko duzu. Zeuk erabakitzen duzu zer erosi eta zelan prestatu. Pisukideen bizimoduak ez du hori baldintzatzen.
U.U.: Zerbait pertsonala dela esango nuke. Kontzientziazten bazara, antolatuko zara.
E.M.: Ez nuke esango txartoago elikatzen garenik.
A.I.: Nire ustez, bilakaera bat izan da. Erasmusen geundenean, okerrago elikatzen ginen. Orain gehiago zaintzen dugu geure burua. Ortu-ko produktuak, ogia,... gehiago erreparatzen diogu horri.

3. TOPIKOA
"Pisukideen etxebizitza batean gurasoenean baino gehiago ligatzen da"

U.U.: (Barreak) Zure pisua duzu, zure habiatxo. Eta errazagoa da,... baina, bueno. Ligatu, kalean ligatzen da! Eta hortik aurrerakoak...
P.B.: Askatsun gehiago duzu eta errazagoa da zure *rollora* joatea.
E.M. eta A.I.: (Barrez) Bai... Gehiago ligatzen da!



"Alokairuko etxebizitza baten batez besteko prezioa 700 eurokoa da Durangon. Ia merkeagoa da erostea, baina zein gaztek erosi dezake?"

Zabalduko Ditugu gazte taldeak emantzipazioa eta etxebizitza eredu berritzaileak lantzeko jardunaldiak antolatuko ditu eskualdean



DURANGO • EKAITZ HERRERA
Durangoko Zabalduko Ditugu gazte taldeak etxebizitzari lotutako arazoak gizarteratzen jarraitzeko asmoa du. Jardunaldi batzuk antolatuko ditu aurrerantzean, fokua etxebizitzaren arloan existitzen diren askotariko alternatibetan ipinita. "Hainbat esperientzia batuko dituen jardunaldia antolatzeke asmoa daukagu, etxebizitza bat izateaz gainera gizartearen zelan antolatzen den eta aurkitu daitezkeen eredu berritzaileen inguruan hausnartu ahal izateko", aurreratu dute dinamika gazteek.

Orain dela urte bi alokairu soziala bultzatzeko dinamika hasi zituzten. "Aho batez onartutako adierazpena aurkeztu genuen udaletxean.


"Etxebizitza bat izateaz gainera, egon daitezkeen eredu berritzaileez ere hausnartu gura dugu"

Hori dela-eta, alokairu sozialera bideratutako hainbat etxebizitza daude gaur egun Durangon", gogoratu dute

gazteek. Aurrerantzean ere bide horretan jarraituko dute.
Izan ere, gazteriak panorama zaila du emantzipatzeko. "Alokairuko etxebizitza baten batez besteko prezioa 700 eurokoa da Durangon. Ia merkeagoa da erostea, baina zein gaztek erosi dezake? Gainera, ez dira asko alokatzen diren etxebizitzak, eta horrek oraindino gehiago zailtzen du. Egoera larria da, batez besteko adina geroago eta altuagoa delako. Gaur egun 30 urte da batez besteko adina emantzipatzeko", adierazi du Zabalduko Dituguk.



Ostalaritza gida



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988

Alde zaharrear kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egutero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

**Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com

Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egutero zabalik.



“Lumagorriekin aritzeak naturagaz hartu-eman handiagoa ekarri dit”

Hezkuntzako lana alde batera utzi eta Arrazolan (Atxondo) lumagorri oilaskoak hazten dabil Garazi Magunagoitia



Garazi Magunagoitia Berezartua
Lumagorri oilaskoak
Atxondo | 1986

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hezkuntzan 11 urtean lan egin eta gero, aldaketa bat behar zuela igarri zuen Garazi Magunagoitia atxondarrak. Ordurartekoa alde batera utzi eta familiako negozioan burubelarri sartuta dabil. Gaur egun, egunero, 2.600 txita gobernatzan ditu Arrazolan (Atxondo) duten ustategian.

Azken urteetako lana alde batera utzi eta lehenengo sektorera pasatu zara. Zer dela-eta hartu duzu erabakia?

Amak lumagorri oilaskoak hazten ditu eta beti ibili izan naiz bere inguruan. Orain arte hezkuntzan ibili naiz lanean, eta ezin izan diot nahikoa denbora eskaini oilaskoen negozioari. Baina iaz deskantsu bat

behar nuela sentitu nuen eta hezkuntzako lana uztea erabaki nuen. Ordutik hona denbora gehiago eskaini diet etxean ditugun lumagorri oilaskoei.

Hezkuntzako lana uztea erabaki zenuenean, bazenuen asmorik familiako negozioa hartzeko?

Banekien aukera hor zegoena, baina ez nuen espero amaren erre-

leboa hartzea. Oraindino prozesu batean murgilduta gaude, gurasoak aurrerantz doaz eta apurka-apurka ardurak hartzen hasi gara. Nik txiten ardura hartu dut eta Maialenek, ahizpak, administrazioko kontuekin laguntzen dit.

Gainera, oso gustura egiten dudana da eta aukera ematen dit beste afizio batzuetarako. Gure

lan prozesua hiru hileka antolatzen da. Hiru hilabeteen ez dugu opor egunik izaten, txitei egunero eman behar zaie jaten eta. Hiru hilero aste bi hartzen ditugu dena desinfektatu eta garbitzeko. Dena ondo antolatuz gero, astebete jai hartzeko aukera egoten da. Horrez gainera, ordutegia oso malgua da eta norberak moldatu dezake. Esaterako, satsik atera behar ez dugunean lau orduko lanegunak izaten ditugu asko jota.

Zer suposatzen du Garazi Magunagoitiarentzat lan honek?

Lumagorriekin aritzeak naturagaz hartu-eman handiagoa ekarri dit. Baita bizitzeko euskarri bat eta familiagaz beste lotura bat izatea ere.

Zuek bigarren belaunaldia zarete. Zelakoa izaten ari da trantsizioa?

Trantsizioa ez da erraza. Azkenean amak hainbat urte daramatza honetan eta eurek euren ohiturak dituzte. Askotan esaten diet hankasartzeak normalak direla halako trantsizioetan. Sarritan kosta egiten da, azkenean belaunaldien arteko talka dago eta onartu egin behar da. **Zergaitik kontsumitu beharko genituzke lumagorri oilaskoak?**

Astiro eta patxadaz hazitako produktuak direlako, zikinik bakoak. Nire ustez, astiro hazitako denak beste balio bat du. Askotan jendeak ez ditu produktu hauek kontsumitzen beste batzuk baino garestiagoak direlako, baina galdetzen diogu geure buruari merkea den hori zergaitik den merkea? Ez.

Zerbait gehitu gura zenuke?

Bere bizimoduagaz gustura ez dagoenari aldatzeko gonbidapena egingo nioke. Bizitzan arriskatu egin behar da. Aldaketak, normalean, onerako izaten dira.

Familia ugarientzako eta eskolako kirola egiteko diru laguntzak emango ditu Elorrioko Udalak

Beharrian ekonomikoa duten familiei lagundu gura diela azaldu du udalak



ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beharrian ekonomikoa duten herriko familiei laguntzeko asmoz, Elorrioko Udalak beste diru laguntza bi onartu ditu. Bata familia ugarien ongizateari laguntzeko da. Bestea 2019-2020 ikasturtean euren seme-alabak eskolako kirola egiteko matrikulatu zituztenentzat.

Elorrioko Udalak 3.500 euro ipini ditu familia ugariei zuzenduriko diru partidarako. Interesa duten guztiek azaroaren 30a baino lehenago aurkeztu beharko dute eskaria HAZen.

Bestalde, 1.000 euroko partida onartu dute eskola kiroleko laguntzarako. Laguntza hau azaroaren 15era arte eskatu ahal izango da. Eskaria udaletxeko erregistro orokorrean egin beharko da.

Berrizen hainbat jarduera antolatu dituzte nagusientzat

Herriko adinekoentzat antolatu duten jarduera programari astelehenean, urriak 19, emango diote hasiera

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Konfinamenduak adinekoengan eragin duen inpaktua txikiagotzeko asmoz, Berrizen hainbat jarduera antolatu dituzte eurenentzat. Udaletik jakinarazi dutenez, adineko pertsonen zuzenduriko jardueren proiektu integral bat da hau, eta Berrizko Udaleko Hiritar-go Batzordeak lehenengoz ipini du martxan. Konfinamenduak nagusiengan eragindako ondorioak arintzea da jardueretako helburua.

Berrizko Udalak antolatu duen jarduera programa urriaren 19an hasiko da, eta asteko egun guztietan egingo dira ekintzak, 9:00etatik 18:30era bitartean.

Hauek dira antolatu dituzten jarduerak: jarduera fisiko pasiboa, memoria tailerra, nagusilagun,

jolas tailerra, tailer digitala eta euskal kantuen ikastaroa, besteak beste.

Nagusientzat antolatu dituzten ekimenok doakoak izango dira, baina beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Dagoeneko

Tailerretan parte hartu gura dutenek 94 682 45 25 telefono zenbakira deitu beharko dute

zabalik dago izen-ematea, eta plazak bete arte jarraituko du horrela. Tailer hauetan parte hartu gura dutenek 94 682 45 25 telefono zenbakira deitu beharko dute apuntatzeko.

Anbotoren lagun izan gura duzu?



Orain duzu aukera! Zelan? BFA-ren Aurrera Kultura bonuaren abantailagaz!

Anbotoren
lagun
30€

Anbotoren lagun
**Bizkaia aurrera
kultura** bonuaren
launtzagaz
15€

1

Eskuratu Bizkaia
AurreraKultura bonua
BBK-ko kutxazainean edo
kutxabank.es webgunean

15€-an



2

Etorri kultura bonuagaz
Anbotoko bulegora
(Bixente Kapanaga 9
behea, Iurreta) eta egin
zaitez **Anbotoren lagun**

3

Atera etekina Anbotoren
lagun txartelari!
Gozatu abantaila eta
deskontuez



+



* Erosteke azken eguna 2021.05.24/
Erabiltzeko azken eguna 2021.05.31. Bonu
honek urtebeteko iraupena izango du

Bidali mezua: anboto@anboto.org
Deitu: 94 681 65 58
www.anboto.org



Iurreta Plazaratu dinamika altzari eta objektuen bilketa antolatu du gaur arratsalderako Abadetxea edukiz betetzeko

Herriko bizitza kulturala sustatzeko asmoz, Iurreta Plazaratu dinamika Abadetxeko ateak zabaldu ditu berriro; herrira zabalduko lekua izatea gura dute



Abadetxeak urriaren 10ean zabaldu zituen ateak berriro, eta hainbat iurretarrak bertan ziren.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Abadetxea edukiz betetzeko bidean, Iurreta Plazaratu dinamika lehenengo pausoak ematen hasi da. Gaur arratsalderako altzari eta objektuen bilketa antolatu dute, eta herritarrek aukera dute etxean gordeta eta erabiltzeko moduan dituzten altzari

eta objektuak Abadetehera eramateko. Iurreta Plazaratuko herriko "bizitza soziokulturala sustatzeko asmoz" zabaldu du Abadetxea, urteetan erabili barik egoniko eraikinari bizitza berri bat emateko.

Bihar zortzi zabaldu zuten Abadetxea eta iurretarrak hasi dira

eraikina erabiltzen. "Gazteak, gaztetxoak, umeak euren gurasoeekin... hasi dira erabiltzen. Premia bat bazegoela erakusten du horrek", azaldu du Iurreta Plazaratuko Markel Onaindiak. Egindako batzarretan adin askotariko hainbat herritarrek parte hartu dutela gaineratu

du. Abadetxeak adin guztietako herritarrek erabiltzeko espazioa izan gura du, herrira zabaldua, eta bide horretan herriko elkarteekin ere hartu-emanetan ipini dira aste honetan, eraikina erabiltzeko interesa edo premia izan dezakeen elkarte edo norbanakoei aukera

hori eskaintzeko. Auzokideekin ere batu dira. "Sintonia ona izan dugu eta bertaratu zirenek Abadetxea zabaldu izana eskertu dute", dio Onaindiak.

Gotzaindegia eraikina

Eraikina gotzaindegia da. Baina orain dela urte bitik hona, Iurreta Plazaratuko hainbat bider eskatu du eraikina zabaltzea, "plaza eta herria bizitzeko gune garrantzi-

Abadetxeak adin guztietako herritarrek erabiltzeko espazioa izan gura du, herrira zabaldua

tsua" dela defendatuta. Horren adibide lez ipini dituzte otsailetik hona gotzaindegia egindako eskariak. Ekainean, adibidez, 500 iurretarrak eta 27 elkarte babestutako eskaria bidali zioten, erabilera adosteko proposamen zehatz batez, baina, Iurreta Plazaratuko esanetan, "denbora honetan guztian ez da inolako erantzunik heldu". Hori ikusita, "eraikina erabiltzen hastea" erabaki dute, "Abadetxea herriarena delako". Oraingoz, beheko solairua erabiliko dute.

Zornotzako Berdintasun Plan berria herritarren iritzia eta beharrianak kontuan hartuta diseinatuko dute

Zornotzako Udalak galdetegi bat ipini du herritarren eskura. Azaroaren 15ean amaituko da bertan parte hartzeko aukera Azaroaren 15ean amaituko da



Zornotzako Udalak faseka landuko du plana.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak III. Berdintasun Plana osatzeari ekin dio eta herritarren parte-hartzea ardatzetariko bat izatea gura du. Galdetegi bat diseinatu du eta herritarren eskura ipini du azken hauek parekidetasunaren arloan dituzten iritzi eta beharrianak zeintzuk diren eza-gutzeko. Udalaren esanetan, herritarren parte-hartzea "funtsezkoa" da Berdintasun Planaren diagnostikoa, ebaluazioa eta idazketa egiteko. Azaroaren 15ean amaituko da galdetegian parte hartzeko aukera. Udalaren web orrira jota eskuratu daiteke galdeketa lotura.

Udalak jakinarazi du Berdintasun Plana faseka landuko duela. Lehenengo atalean, orain arte indarrean egoniko plana ebaluatuko

dute. Bigarren fasea galdetegi honi dagokio. Hirugarren atalean, plan berria idatziko dute.

Ahalduntze ikastaroak

Bestalde, Zornotzako Udalak lau tailer antolatu ditu emakumeen ahalduntzea lantzeko. Sexualitate askatasuna, zapaldutako amatasunak, feminismoa eta sexu-ahalduntzea landuko dituzte. Jardunaldi-tarikoko batzuk azaroan egingo dira; beste batzuk, ostera, abenduan. ANBOTOn web orrian kontsultatu daitezke tailerren ezaugarriak eta ordutegiak.

Izena emateko epea urriaren 27ra arte dago zabalik. Izena emateko, 94 630 01 90 telefono zenbakira deitu edo berdintasuna@amorebietta.eus helbidera idatzi beharko da.

Ahoztar Zelaietak 'Zaldibar Zona Cero' liburua aurkeztuko du Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Ahoztar Zelaietak Eitzagako hondakindegia tragediaren inguruko ikerketa egin du bere azkenengo liburuan. *Zaldibar Zona Cero* du izenburua liburuak eta aurkezpen bi egingo ditu Zaldibarren

Eitzagako hondakindegia tragediaren inguruko ikerketa egin du

rreren. Lehenengoa gaur izango da, gaztetxean, 19:00etan. Bigarrena astelehenean izango da, urriaren 19an, 18:30ean, liburutegi zaharrean. Zelaieta kazetaria eta kriminologoa da eta Egin eta Ardi Beltza komunikabideetan lan egin du, besteak beste. *El narco-oasis vasco* izan zen bere aurreko liburua.

Izurtzako Bitaño auzoko bizilagunek sinadurak batu dituzte auzo horretan dagoen ehiza gunea kendu dezaten eskatzeko

Sinadurak udaletxean aurkeztu dituzte eta udalak Aldundira bidali ditu, harek baitu horretarako eskumena

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Ehiza denboraldia oraintsu hasi da eta Izurtzako ehiza gunetarikoa bat Bitaño auzoko lurretan dago. Hango hainbat bizilagun sarritan kexatu dira ehiza denboraldiak eragiten dizkien eragozpenen inguruan, eta aurten urteroko egoera errepikatzen dabilela diote. Hori dela-eta, sinadura bilketa bat egin dute, ehiza gunea hori kendu dezaten eskatzeko. Bitaño bizi den Marili Urkizak azaldu duenez, auzotarrik gehienek sinatu dute eskaera, eta udaletxean aurkeztu dute. Udalak, bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundira bideratu ditu sinadurak eta eskaera, harek baitu horretarako eskumena. Udal arduradunen esanetan, herriko ehiza elkarteari ere helarazi diote dokumentua, jakitun egon daitezen.

Goizean goizetik ehiztarien tiroek ateratzen duten zarata, horrek bizilagunei ez ezik etxeko abereei eragiten dien estresa eta, orokorrean, baserrien ondoan ehiza gunea bat izateak eragin ditzakeen

arriskuak aipatu ditu, besteak beste, Urkizak ehiza gunea kentzeko eskaera arrazoitzeko. Gainera, gogoratu du aurtengo abuztutik Izurtzan martxan dauden Nordic Walking ibilbideetarikoa bat handik ingurutik igarotzen dela eta bide

Bitaño auzotarrek sarritan kexatu dira ehiza gunek eragiten dizkien eragozpenak direla-eta

horretatik dabilzan oinezkoak ere arrisku taldearen barruan sartzen direla. Oraingoa ez da Bizkaiko Foru Aldundira jo duten lehenengo aldia, baina oraingoan, eskaerari auzotarren sinadurak gehituta, eragin handiagoa izatea itxaroten dute.

Aurretik beste bide batzuk ere urratu dituzte. Esaterako, iaz Arartekora jo zuten, baina bide horretatik ere ez dute aurrerapausorik lortu oraingoz.



Izurtzako ehiza gunetarikoa bat Bitaño auzoan dago.

Mañarian lehiaketa publikoa abiatu dute Errekondo tabernaren kudeaketa esleitzeko

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Errekondo tabernaren esleipena lehiaketa publikora aterako du udalak. Errenkondoko kudeaketa esleitzeko baldintza-orria hurrengo atzo egin zuten publiko. Atzotik aurrera, interesatuek hamabost egun natural izango dituzte euren proposamenak aurkezteko. Baldintza-orria, besteak beste, udaletxean bertan eskuratu daiteke. 2018ko maiatzetik tabernaren kudeaketa zeramaten lagunek uztea erabaki dute eta horregaitik abiatu du lehiaketa publikoa Mañariko Udalak.



Interesatuek 15 egun natural dituzte euren proposamenak aurkezteko.

Askotariko ikastaroetan izena emateko aukera Otxandion

Mainondo Kirol Elkartek zazpi ikastaro prestatu ditu azaro eta abendurako; urriaren 27ra arte eman daiteke izena

OTXANDIO • J.D.

Mainondo Kirol Elkartek herritarrei bideratutako hainbat ikastaro antolatu ditu azaro eta abendurako. Honako hauek dira: Hipopresiboak eta postura zuzenketa, Txirrinbike —txanda bi—, gimnasia, zumba —txanda bi—, yoga, mindfulness, nagusien yoga eta intentsitate altuko entrenamendu funtzionala. Ikastaroen egunak eta prezio zehatzak —15 eta 36 eu-

roren artean daude— udaleko sare sozialetan irakurri daitezke.

COVID-19a dela-eta, ekintza guztietan osasun neurriak bermatuko dira. Mainondoko gunea bi erabiliko dituzte ikastaroak egin ahal izateko: eskolako gimnasioa eta frontoi azpiko kiroldegia. Ikastaroen arduradunek ohartarazi dutenez, parte hartzaileen kopuru minimo bat beharko da ikastaroak antolatu ahal izateko.

CERAMICAS
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Kriskitin dantza taldea

Hareek denporak!

Dantzari Dantza parekidea Durangoko jaietan

Orain bost urte, 2015ean, Kriskitin dantza taldeko kideek Dantzari Dantza parekidea dantzatu zuten Durangaldean lehenengoz, Durangoko udaletxe aurreko plazan. Lau mutil eta lau neskek irten zuten plazara, denak ezpatadantzariak. Gero ikuspuntutik aurrerapauso handia izan zen. Geroago, Kriskitinek berak, Durangaldeko Ezpatadantzari egun batean

lehenengoz, talde parekidea aurkeztu zuen Izurtzan. Han ere, Ezpatadantzari egun batean emakumeek ere parte hartu zuten talde parekide batean. Hori ere pauso garrantzitsua izan zen dantza arloan. Orain bost urte garaipen handia lortu zen, oztopo guztien gainetik, eta gaur egun Durangaldeko talderik gehienek dantza talde parekideak dituzte hari eskerrak. J.G.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



Borondate politikoa

Azken urteotan, Durangon hamaika aldiz entzun dugu dena borondate politikoa kontua zela.

Zergak izoztea, ludoteka bat irekitzea, Pinondo Etxea konpontzea, Mikeldi idoloa berreskuratzea, PERIa geldiaraztea, edo pentsiodunei 1.080 euroko pentsioak bermatzea, borondate politikoa kontua baino ez ziren.

Baina badirudi zerbait aldatu dela Durangon. Izan ere, lehen borondate politikoa ezagatik zena, magiaz bezala, arazo tekniko, juridiko edota ekonomiko bihurtu da.

Ikus dezagun adibide erraz bat. 2016an, gaur egun Durangon gobernatzen dutenek jo ta ke ibili ziren IBIaren igoeraren aurka. Eta zer egin dute gobernura iritsi eta zergak izozteko aukera izan duten bezain pronto? IBIa igo.

Bai, harrigarria bada ere, tasak eta zergak izoztu dituzten inguruko gainerako udalerriek egin dutenaren aurka, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak irizpidea aldatu dute, eta alde bakarrez eta inori entzun gabe erabaki dute IBIa igotzea Durangoko etxebizitzetara, merkataritza-lokalei eta enpresei. Esan digutenez, irizpide tekniko eta ekonomiko hutsari jarraituz.

Suposatzen dugu gobernu-talde honek agindutako jardura ugari ez abiaraztera eraman duen irizpide bera dela, hala nola ludoteka irekitzea, San Agustineko ospitale zaharra zentro soziokultural bihurtzea edo Pinondo Etxea birmoldatzea. Edo, okerragoa dena, durangarrek oso positibotzat jotzen dituzten hainbat zerbitzu nabarmen murriztea. Hala nola Andraguneko ahalduzko-ikastaroak, Durango Kirolak programatutako kirol-jarduerak, pintura, trikitixa, pandero, alboka, gitarra... ikastaroak eta beste hainbat jardura murriztu dira, COVID eta irizpide tekniko-ekonomikoa aitzakiatzat hartuta.

Bakarrik espero dugu gobernu talde honek laster borondate politikoa berreskuratzea, Durango eta durangarrak atzean gera ez gaitzean. Borondate onez danok irabaziko dugu.

Durangaldea asteen

Aitzol Maurtua preso atxondarra Dueñaseko espetxera hurbilduko dute

Atxondo | Aitzol Maurtua preso atxondarra 2002an atxilotu zuten eta 20 urteko kartzela zigorra betetzen dabil. Espainiako Espetxe Erakundeek jakinarazi dutenez, Huelvako (Andaluzia) espetxetik Dueñasera (Palentzia) hurbilduko dute. Beste bost preso ere lekualdatuko dituztela iragarri dute.

Elorrioko Udala auzo bideetako bazterrak garbitzen eta asfaltatzen dabil

Elorrio | Elorrioko landa inguruko auzoetako bide bazterrak garbitzeko eta sastrakak kentzeko lanak hasi ditu udalak. Lanak San Agustin auzoan hasi eta mendebaldetik ekialdera auzo guztietara zabalduko dira. "Herriko beharrian horiei apurka erantzuna ematea da helburua", esan du Idoia Buruaga alkateak.

Ondare jardunaldiak asteburuan Garain, Berrizen, Mañarian eta Zornotzan

Durangaldea | Europako Ondare Jardunaldien barruan hainbat ekimen antolatu dituzte Durangaldean astebururako. Urriaren 17an sendabelarren ibilbidea egongo da Mañarian, auzo eskolatik ibilaldia Zornotzan, eta 'Gure aitita-amamen eskolak' eraskuketa Berrizen. Urriaren 18an, 12:00etan, sendabelarren ibilbidea egingo dute Garain.

Iritzia

Biba zuek!

Eskerrik asko. Ez dugu beste berbarik joan zen barikuan Iurretan bizi izan genuena eskertzeko. 'Jantzari' dokumentalaren aurkezpenean sentitu genuena zoragarria izan zen. Iurretan kultur egitaraua prestatu dute udazkenerako, eta programazioan lehenengoak ginen. Kultura segurua da, ez izan zalantzarik. Baina, segurua da, hainbat herritar kultur ekitaldiak berme guztiekin antolatzeke prest daudelako. Gazte asko txaleko horiekin ikusi nituen antolakuntzan. Belaunaldi gazteak auzolanean ikusteak emozionatu egiten nau. Biba zuek! Era berean, gure eskerrik beroena parte-hartzaileei, babesleei, ikus-entzuleei eta bertaratu zineten guztioi. Kolosala izan zen!

Jone Guenetxea Arrinda • ANBOTOk zuzendaria

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOk irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

BURUARI KLIK!



HIEROGLIFIKOA

Beheko alfabetoaren laguntzaz idatzi azpiko marran hieroglikoak osatzen duten esaldia.

A	B	D	E	F	G
					
H	I	J	K	L	M
					
N	Ñ	O	P	R	S
					
T	U	X	Z		
					






TOPATU ITZAZU


Beheko irudian zazpi katu beltz daude izkutatuta.
Denak topatzeko gai zara?



GURUTZEGRAMA

Bete gurutzegrama behean dauden irudien laguntzagaz.





ZEIN DA ZEIN?

Egiptoko jainko/jainkosa hauek animalien burua daukate.
Goian dauden animalietatik zeintzuk dira?





Hieroglifiko hauek guztiak bikiak dira bi izan ezik. Denak topatzeko gai izango zara?




SUDOKUA

Bete itzazu beheko irudiekin sudokuan hutsik dauden laukiak.




DOMINOA

Marraztu itzazu falta diren irudiak lauki zurietan.



DIFERENTZIAK

Topatu 10 diferentziak.



Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak





Biribilean KONTZERTUA BERRIZ :: Urriak 17

‘Biribilean’, Esti eta Mikel Markezen eskutik

Mikel eta Esti Markez aita-alabek kontzertua eskainiko dute, zapatuan, Berrizko Kultur Etxean. 2015ean igo zen lehenengoz oholza gainera Esti Markez aitagaz batera, Aian eskaini zuten kontzertuan. Lau urte geroago, Errenteriako abeslariaren ‘Biribilean’ zuzeneko diskoan aho-tsa ipini du Esti. Lan horretan batutako abestiak entzuteko

aukera egongo da urriaren 17an Berrizen, Esti eta Mikel Markezen ahotik.

Umea zenetik musika izan du bidelagun Esti, eta, orain, lan berriaren aurkezpen kontzertuekin inoiz baino gehiago murgildu da bidean. Kontzertua Berrizko Kultur Etxean emango dute. 20:00etarako ipini dute hitzordua.

Urriaren 16an

ABADIÑO bertsoak

Gazte Bertso saioa:

Bittor Altube Sarriñandia, Leire Vargas Nieto, Igor Galarza Intxausti eta Araitx Katarain Mugarza bertsolariekin, 22:00etan, Errota kultur etxean. Gai jartzailea: Jon Zialzeta Pagonabarraga.

DURANGO musika

Raitx, 21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO antzerkia

‘Yo, la peor del mundo’ (Vaiven produkzioak), 20:30ean, Arriola antzokian.

Urriaren 17an

DURANGO erakusketa

‘San Fausto Gogoan’

argazki instalazio ibiltaria, Ibaizabal parkean.

ELORRIO musika

Izaki Gardenak, 20:30ean, Txintxirri ikastolan. Ikastolen Elkarteak antolatuta.

MAÑARIA berbaldia

Ondarearen Jardunaldiak:

‘Euskal Herriko sendabelarrak’ (Hizlaria: Mentxu Amunategi) 10:00etan plazan.

‘Festamentua’ (Tio Teronen Semeak), 18:00etan.

Jesus Martin Moro organista, 19:00etan.

OTXANDIO berbaldia

Ondarearen Jardunaldiak:

Rolen arabarako hezkuntza, 18:30ean kultur etxean.

ZORNOTZA berbaldia

Ondarearen

Jardunaldiak: ‘Auzo eskolak’ (Hizlaria: Urko Garamendi), 11:00etan, Zelaia zentroan. Ondoren, auzo eskolak bertatik bertara bisitatuko dituzte autobusean.

ZORNOTZA antzerkia

‘Botadun Katua’ (Glu Glu), 18:00etan eta 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 18an

DURANGO azoka

Nekazaritza Azoka, 10:00etan, Andra Mariko elizpean.

GARAI ibilbidea

Sendabelarren ibilbidea (Mentxu Amunategi), 12:00etan.

ELORRIO ekitaldia

Ibilaldien agur ekitaldia: bertsoak, magia, musika eta dantza, 11:00etan, Txintxirri ikastolan. Ikastolen Elkarteak eratuta.

Urriaren 19an

MAÑARIA berbaldia

Ondarearen Jardunaldiak:

Asunción Badiola, 19:00etan, liburutegi zaharrean. Frankismo garaiko emakumeen kartzelen gaian aditua.

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Trasto**
barikua 16: 18:15
domeka 18: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Ane**
barikua 16: 19:30/22:00
zapatua 17: 19:15/22:00
domeka 18: 18:30/21:00
astelehena 19: 18:00/20:30
martitzena 20: 19:30
eguaztena 21: 19:00

• **No matarás**
barikua 16: 19:30/22:00
zapatua 17: 18:00/20:00/22:00
domeka 18: 18:15/20:15
astelehena 19: 18:00/20:30
martitzena 20: 20:00
eguaztena 21: 19:30

• **The vigil**
barikua 16: 22:00
zapatua 17: 22:00
domeka 18: 21:00
astelehena 19: 20:30
martitzena 20: 20:00
eguaztena 21: 19:30

• **Bi urte, lau hilabete eta egun bat**
barikua 16: 19:30
zapatua 17: 19:15
domeka 18: 18:30
astelehena 19: 18:00

• **Como perros y gatos 3: la patrulla unida**
zapatua 17: 17:00
domeka 18: 16:30

• **El arco mágico**
zapatua 17: 17:00
domeka 18: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Nunca, casi nunca, a veces, siempre**
zapatua 17: 22:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Bi urte, lau hilabete eta egun bat**
barikua 16: 20:15

• **Akelarre**
zapatua 17: 21:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:15

• **Koko, dragoi txikia oihanean**
domeka 18: 17:00

Bibliotekako ekintzekin hasiera goaz!

2020-2021

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak


AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

AINHOA URIEN
Poesia, Zaurien Ukendu
Ainhoa Urien (Pamiela)

MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

 **keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO**
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhua Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak
Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínicadental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako.

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO**
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6
48200 - DURANGO**
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Lander Garro
Zine zuzendaria
Erreterria | 1975

“Intsumisioak asmatu egin zuen konplizitateak bilatzen, bere izaera festibo eta zintzoagatik”

Lander Garrok zuzenduriko 'Bi urte lau hilabete eta egun bat' dokumentala emango dute Durangon eta Zornotzan

DOKUMENTALA • EKAITZ HERRERA

Iruñeko kartzelan intsumiso talde batek grabaturiko irudiak oinarri hartuta dokumentala egin du Lander Garrok. Intsumisioaren mugimenduen inguruko gogoeta egiteaz gainera, etorkizuneko erronkak ere berabagai dituzte. Durangoko Zugaza zineman asteburu osoan ikusgai egongo da, eta gaur Zornotza Aretoa.

2001ean, derrigorrezko soldaduska bertan behera geratu zen. Intsumisioaren garaipen bat da. Filma 20 urte geroago landu duzue. Zergaitik orain?

2012an Iruñeko kartzela zaharra eraitsi zuten, eta horrekin du zerikusia. Preso egoniko intsumiso talde bat filmatzera sartu zen kartzela horretara. Euren burua grabatu zuten, dokumentu grafiko bat, eta Gaizka Aranguren ekarri gertatu zituen irudi horiek. Handik lau urtera deitu egin zidan, ea material harekin zer edo zer egin genezakeen galdetzeko. Materiala erakutsi zidan eta oso irudi ederrak ikusi

nituen. Irudi horiek erakarrira hasi nintzen dokumentala lantzen.

Intsumisioaren mugimenduen inguruan memoria historikoa lantzea da helburuetariko bat?

Orain 25-30 urte zelakoak ginen azaltzen du filmak; Soldaduskaren, militarismoaren eta halako fenomenoaren aurrean gizarteak erakutsitako jarrera eta zelan antolatu ginen azaltzen du. Armadari eta gobernuari garaipen txiki hori lapurtzen zelan jakin genuen ikusten da. Memoria historikoa lantzen da bertan, eta gaur egungo erronken aurrean antolatu eta borrokatzeko aplikatu daitekeen paradigma bat da.

Eman zaio behar den besteko garrantzirik garaipen horri?

Erantzun bikoitza emango nioke galdera horri: bai eta ez. Alde batetik, iraganeko fenomeno moduan sentitzen dugun zerbaite da. Momentu jakin batean gertatu zen zerbaite, museo batean ipinita balego legez. Bestetik, esango nuke harrituta geratu naizela, dokumentala proiektatzen hasi aurretik ez niolako inoiz neure buruari aitortu

kontu honek zenbat jende ukitu zuen eta oraindik zenbat ukitzen duen. Jende asko joaten da pelikula ikustera, eta egoera zelan bizi izan zuten eta zein ekarpen egin zuten gogoratzen dute. Jendea oso protagonista izan zen mugimendua izan zen, eta horregaitik gogoratzen du horrenbeste jendeak. Mugimendu horren oihartzuna oraindik ozen

“

Jende asko joaten da pelikula ikustera, eta egoera zelan bizi izan zuten eta zein ekarpen egin zuten gogoratzen dute”

“

“Elkarrizketa hau irakurtzen dutenei esango nieke dokumentalean ez dutela ikusiko aurreikusten dutena”

entzuten da gaur egungo gizartean. **Edurne Elizondok intsumisioaren inguruko liburu bat idatzi zuen orain 10 urte. 'Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian'. Liburuan aipatzen du Euskal Herri osoko mugimendua izan zela, eta Nafarroan ipintzen du fokua.**

Intsumisioaren irudiak etorri zitzaizkidanez, emana etorri zitzaidan, egitura aldetik. Lurraldetasunari dagokionez, zabalagoa da, eta nafarrak ez direnak ere agertzen dira. Hala ere, egia da Nafarroan ipinita dagoela fokua, errepresioak gehien kolpatu zuen lurraldea izan zelako, alde handiarekin. Eta ez bakarrik Euskal Herriko beste lurraldeekin alderatuta, baita estatuan eta mundu guztian ere. Nafarroako epaitegiek gogor zigortu zituzten intsumisioak, baina, hala ere, gazteak burugorrorak ziren. Oso bataila zabala izan zen. Horregaitik amaitu zuten askok eta askok kartzelan.

Maila pertsonalean, zuk zelan bizi izan zenuen intsumisioa?

Intsumisioa izan nintzen. 1997-1998an postaria gutunarekin etorri

zen etxera. Bigarren abisuarekin ere bai. Udaltzainak, epaitegia... gurpil errepresibo batean sartzen zinen. Nire kasuan, sasoi hartako gazterik gehienek kasuan legez, ez zuen eragin handirik izan. Zigortu egin gintuzten, baina ez genuen soldaduska egin behar izan. Amaiera hortxe zegoela sentitzen genuen. Askoz lehenagotik ere, beti ibili izan ginen Gaztetxean, aurretik etxe okupatuan...12-13 bat urte nituenetik, banekien sasoi helduek intsumisioa izango nintzela. Oso harro onartu nuen intsumiso izateko erronka.

Gaur egun mugimendu hori aplikagarria dela esan duzu. Zein zentzutan?

Intsumisioa arazo handia izan zen estatuarentzat, jende asko auzibidean sartu behar zutelako. Nafarroako intsumiso presoek kasuan, are gehiago. Arrazoi ideologikoengaitik jendea auzibidean eta kartzelan sartzea izan zen buruhausterik handiena. Horrek erakusten du estatuak asumitu dezakeela errepresio txiki bat, baina errepresio handi baten aurrean estatuari kontraesan asko sortzen zaizkiola. Alde horretatik, erresistentzia zibil ez bortitzaren estrategia oso eraginkorra izan daitekeela ikusten da. Bestalde, interesgarria da gaur egun aipatzen den transbertsalitatea. Intsumisioak asmatu egin zuen konplizitateak bilatzen, bere izaera festibo eta zintzoagatik. Sektarismoa oso txarra da erronka politiko handiak aurrera eramateko. Eta aldi berean oso ona bakarrik geratzeko. Transbertsalitatearen bitartez, konplizitateak bilatzerakoan aldaketak bultzatu daitezke.

Durangora eta Zornotzara dokumentala ikustera joan gura dutenei, zer esango zenieke?

Elkarrizketa hau irakurtzen dutenei eta han eta hemen kontuak entzun dituztenei esango nieke ez dutela ikusiko aurreikusten dutena. Ez da obserbazioan geratzen den film bat. Gaur garenarekin eta etorkizuneko erronkekin lotura egiten du. Pelikula ikusten dutenek horixe esaten dutelako diot nik. Interesgarria da esatea oso ekipo femeninoa dela eta parte-hartzaileen artean emakume asko dagoela. Emakumeen parte-hartzea esentziala izan da. Oso ezberdina da haiei esker. Pertsona oso potenteak filmatu ditugu. Azken batean, pertsona horien ahotsek osatzen dute dokumentala, kamera aurrean agertzen direnek egiten dute.

MUSIKA • A.M.

Durangoko Plateruena kulturguna Redstone jaialdiaren aterpea izango da aurtengo edizioan. Bosgarren edizio honetan, hamar bakarlaritako dira taula gainean. Gaur hasiko da zikloa, Raitxen kontzertuagaz. Gero, musikari hauek etorriko dira: Jon Gurrutxaga (urriak 23), Mice (urriak 30), Petti (azaroak 6), Maite Larburu (azaroak 13), Pelax (azaroak 21), Eneritz Furiak (azaroak 27), Joseba Irazoki (abenduak 11), eta Joseba B. Lenoir eta Gaizka Insunza (abenduak 18). Kontzertuak barikuetan izango dira eta zikloa abenduan amaituko da.

Hamar bakarlarik eskainiko dituzte kontzertuak Redstone musika jaialdian

Redstone musika zikloa Ondarroan (Bizkaia) jaio zen, hango eskaintza kulturala aberasteko. Iaz, zirkuitu itxura hartu zuen estreinakoz, eta Iruñeko Katakraken eta Bilboko Biran ere egin ziren zuzenekoak. Aurten, Ondarroatik kanpora egingo dira ekitaldi guztiak, edukiera mugek horrela baldintzatuta.

Raitx lehenengoa

Raitx hirukotea Elorrioren jotzekoa zen udan, Musikairen, baina emanaldia bertan behera geratu zen eguraldi txarragaitik. Raitx Gipuzkoarrek *Abereek entzungo balute* diskoa aurkeztuko dute gaurko

Raitx hirukotearen emanaldia izango da Redstone jaialdiaren lehenengo geralekua

Hamar emanaldik osatzen dute jaialdia; Raitxen kontzertua barikuan izango da, 21:00etan, Plateruenean



Raitx.

Iruñeko Katakraken, Bilboko Biran eta Plateruenean izango dira zuzeneko emanaldiak

emanaldian. Rakel Arenaza Acedo donostiarra da proiektuaren sustatzailea, eta beragaz batera Esti Beraza eta Xalba Ramirez igoko dira taula gainera. Hirurak Koban taldean aritu ziren elkarregaz lehenago ere. Sei abestik osatzen dute

Abereek entzungo balute diskoa, eta Raitxek pop intimista proposatzen du bertan. Ibilbide laburra izan arren, hirukoteak Gaztea Maketa lehiaketa irabazi du denbora honetan, eta horrez gainera hainbat kontzertu eskaini dituzte azken hileetan, tartean Kutxa Kultur Gauak programan, Tabakaleran (Donostia).

Kontzerturako sarrerak zortzi euroan daude salgai, eta leihatilari erosiz gero, 10 euro ordaindu beharko dira.

Sor Juana Ines de la Cruz protagonista duen obra, Arriolan

'Yo, la peor del mundo' gaur taularatuko dute, 20:30ean

ANTZERKIA • A.M.

Arriola kulturguna umorezko musikal bat proposatuko du bariku honetarako: *Yo, la peor del mundo*. Bertako protagonista Juana Ines de la Cruz arreba da; Sor Juana poeta ere bazen. Funtsean,

Kontakizunak musika, umorea, melodrama erromantikoa eta tragedia uztartzen ditu

guztiari eta guztiei aurre egiten dien emakume baten istorioa kontatzen du antzezlanak. Juana Ines de la Cruz arreba gorte kolonial mexikarra konkistatu zuen bere bertsoekin. Urrezko Mendeko

musa boteretsuen maitale eta elizaren biktima ere izan zen, ezin izan zuelako bere izpiritu errebeldea apaldu.

Gaur egunean ere indarrean dagoen kontakizun historiko honek musika, umorea, melodrama erromantikoa eta tragedia uztartzen ditu. Aktoreek bederatzi pieza antzeztuko dituzte musikalean. Ainara Ortega, Itxaso Quintana, Nerea Gorriti, Ana Pimenta eta Ugaitz Alegria dira antzezlaneko aktoreak. Iñaki Salvador musikari ezaguna arduratu da musikaz. Juana de Ines de la Cruz arreba berbaldi original bi ere eskainiko dituzte. Ikuskizunean segurtasun neurriak kontuan hartuko dira.



'Yo, la peor del mundo'.

Gai librean

Kuxkuxeroak

Lagun bat Facebooken zerk dibertitzen duen irakurtzean harridura sentitu dut. Estimatu dut bera, estetika ulertzeko duen moduagatik, besteak beste. Esteta izatea jarrera da bere bizitzan, esango nuke. Finetan finenetakoa.

Facebookeko bere profila nork kuxkuxeatzen duen kuxkuxeatzeak dibertitzen omen du bera.

Harritu behar ote ninduen pentsatzeari ekin eta estatistika bat gogora: ikusezin bagina, zer egin nahi izango genuke gutako gehienok? Hona galderaren erantzunik ohikoena: kuxkuxean aritzea, hots, inork ikusten ez gaituela, inori so egotea.

Onartu dezagun nahi hori gu guztiongan dagoela, gizakiaren izaeran dagoela. Onar dezagun honakoa baita: inoren etxe barruan gertatzen denetik, guztia jakin nahi dugula, ez bakarrik maindire arteko kontuak. Guztia. Afaria prestatzen denbora ematen dute ala hozkailutik ateratzen



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

den lehena jaten? Nork lisatzen du etxean eta zer lisatzen du? Eta zer ez? Etxekoetan nor da maitakorrena? Nor agintariena?

Facebookeko bere profila nork kuxkuxeatzen duen kuxkuxeatzeak dibertitzen omen du bera.

Telebistako zeintzuk saio ikusten dituzte? Etxean otso da kanpoko usoa? Gure Facebookeko horma begiratzen ari dira? Gutaz hitz egiten? Gure etxeko horma atzean kuxkuxeatzen, akaso?

Hitchcock-en filmeen arrakastaren giltzetako bat gudan suspensea erabiltzeko zuen maistratasuna zen: *Rear window* izenekoan hasieratik James Stewart-en konplize egiten gaitu. Filmeak protagonistaren prismatikoen atzean ezkututzen gaitu begira jakin-minez. Gaixotasunak leiho ondotik mugitu ezinik duen ho-

Irudikatzen dut lagun esteta hori, James Stewart bezala, oina igeltsuan duela

rrentzat bizikide guztiak dira behatuak izateko onak: eskultorea, ezkonberriak, txakurraren jabe biak, pianojolea zein emakume erromantikoa.

Unibertso txikia osatzen da Manhattaneko bizikideen patioan, pertsonaia guztien bizitza aurreko jarrera desberdinen batuketa baino ez dena. Durangaldeko patio bakoitzean mundu osoa dagoen bezalaxe.

Irudikatzen dut lagun esteta hori, James Stewart bezala, oina igeltsuan duela, leiho bakoitzeko bizitza bakoitzean edertasuna bilatzen eta topatzen. Bere begietatik ikusi nahi dut eta berari ere begiratu nioke, bai.

<http://josunearanguren.blogspot.com>

Mauri Imaz Bengoa

Urkiola 365 bider igoko du hezur-muina ematearen aldeko kanpainan
Durango | 1982



“Hezur-muinaren donazioaren falta handia dago gaur egun eta behar duten horien bozgorailu izan gura dut”

Aisialdi moduan hasitako ekintza erronka solidario bihurtu du Mauri Imazek. Urtebete egunero igoko du Urkiola mendatea bizikletan, hezur-muinaren donazioaren garrantzia lau haizetara zabaltzeko

BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

'Tourkiola 365' izena ipini dio aste honetan hasi eta 2021eko urriaren 12an amaituko duen erronkari. Elastiko berezi bat prestatu du horretarako, hezur-muineko emailen erregistroan sartzeko deitu behar den telefono zenbakia handi-handian ageri den bat. Hezur-muinaren beharrian handia dagoela dio eta erregistroan sartzera animatu gura ditu herritarrak.

Zelan sortu da hezur-muina ematearen aldeko erronka hau?

Orain gutxira arte errepidean bizikletan sekula ere ibili barik nengoen. Lagun batek proposatuta hasi nintzen, utzi zidaten mendiko bizikleta batez. Geroago eta hobeto sentitzen nintzen eta Urkiola igotzea pentsatu nuen. "Hau egunero egin behar zenuke", esan zidan lagunak, eta horretan hasi nintzen. Eta Urkiola hainbat egunetan igo eta gero, testuinguru solidario bat eman niezaiokeela pentsatu nuen. Hezur-muina ematearen inguruko

elastiko bat egin eta, Amankomunazgotik sustatutako '30 egun bizikletan' ekimenean oinarrituta, Urkiola egunero igo nuen hilabete. **Zergaitik aukeratu zenuen hezur-muinaren donazioa eta ez beste bat?** Hezur-muin emailen falta handia dago eta behar duten horien bozgorailua izan gura dut. Txarto pasatzen dute eurek eta txarto pasatzen dute euren senitartekoek. Behar duenarentzat bateragarria den hezur-muinaren bila ibili behar izaten dira, eta pena da zeren eta gutako bakoitzaren barruan dago irtenbidea.

Zelan bihurtu daiteke hezur-muinaren emaila?

Urkiola igotzeko darabildan elastikoan ageri den telefonora deitu daiteke: 900 102 688. Hezur-muin emailen erregistro nazionalako [REDMO] zenbakia da. Zerrenda bat osatzea dute helburu. Odola aterako dizute eta zure ezaugarriak gordeta geratuko dira. Noizbait zure ezaugarriak hezur-muina behar duen batez bateragarriak badira,

zugaz hartu-emanetan ipiniko dira eta, ados bazaude, hezur-muina ateratzeko prozesua hasiko da. Batzuek beldurra diote hezur-muina emateari, baina erregistroa badago eta hezur-muina emanda pertsona baten bizia salbatuko duela esaten badiote, aurrera egingo du seguruenik. Baina dei hori zerren-

“

Gabezia bat dagoela ikusi dut, eta erronka honetan nire aletxoak ipintzen nabil, egoera hobetzen ahalegintzeko

”

dan bazaude baino ez dute egingo. Horregaitik da oso garrantzitsua erregistro hori.

Aurretik bizikletan ibili bakoa izanda, gogorragoa egiten da erronka?

Bai, baina hezur-muina behar duten bizitza eta euren senitartekoen gogorragoa da eta zerbait egin gura nuen hori erakusteko.

Hilabeterako erronka zena urte osoa luzatu duzu. Zergaitik?

Hedabideetatik deitzen hasi zitzaizkidan eta egiten ari nintzenak oihartzuna zuela ikusita, erronka datorren urteko urrira arte luzatzea erabaki nuen, 2021eko sanfaustoetara arte. Ezin nuen olatua igarotzen utzi, beharbada etorkizunean ez da besterik sortuko eta. Horrelako erronka handi bat deigarria gertatzen zaio jendeari, eta elastikoan daramadan telefonoa ahalik eta gehien zabaltzea da nire helburua.

Fisikoki, zelan daramazu Urkiola egunero igotzea?

Ondo. Alderdi fisikoak ez nau bereziki kezkatzen. Beti kostatzen da, baina gora heldu eta zergaitik egiten dudana gogoratzeak indarberritu egiten nau. Ibilgailuek gehiago arduratzen naute. Euria egiten duen egunetan, gidarientzat gatxagoa da bizikletan doana ikustea, eta arriskua handitu egiten da, batez ere mendatean behera zoazenean. Udazkenean gaude, gero negua dator, eta euritsuak izaten dira biak. Baliteke noizbait Urkiola birritan igotzea eta ekaitz egun batean etxean geratzea. Baina, tira, gura duenak nire ibilerei jarraitu ahalko die, egunero argazki bat sartuko dut-eta instagram sare sozialeko *tourkiola_365* kontuan, jasota geratu dadin.

Utzitako bizikleta batez gaur zabilta Urkiolan gora.

Bai, mendiko bizikleta bat da. Helburu solidario baterako da eta, zelanbait esateko, beste kate solidario bat sortzea gustatuko litzaidake: norbaitek elastiko bat eman edo beste bizikleta bat utzi gura badit, bada, bikain. Eta jen-

deak mendatea nigaz batera igo gura badu, hori ere bikain legoke. Horrelako gauzak irtengo direla sentitzen dut. Badut konfiantza hori.

Norbaitek zugaz igo gura badu, noiz aurkituko zaitu Urkiolan gora pedalei eragiten?

Goizetan igotzen dut, normalean 07:30 inguruan. Izan ere, 09:00etan lanean egon behar dut arrebagoz batera dudana arkitektura bulego batean. Hau da, nire lanorduetatik kanpora egiten dudana zerbait da, nire denbora libreko zati bat erronka honi

“

"Beti kostatzen da, baina gora heldu eta zergaitik egiten dudana gogoratzeak indarberritu egiten nau"

”

eskaintzen diot. Erronka hau ez dut egiten inor baino gehiago naizela erakusteko edo antzerako konturen batez. Gabezia bat dagoela ikusi dut eta nire aletxoak ipintzen nabil egoera hobetzen ahalegintzeko.

Beste ezer gehitu gura duzu?

Nire ustez, hezur-muinaren donazioa bete behar bat izan beharko litzateke; behintzat erregistratuta egotea, beharrian dagoenerako. Hau da, behar dutenentzat eskubide bat izan behar du, eta gainerakoentzat bete behar bat. Horrela ikusten dut nik. Azkenean donazio batek bizi bat salbatu dezake eta denok horren kontzientzia handiago izan behar genuke.



Mauri Imaz Urkiolan, donaziorako telefonoa jasotzen duen elastikoa jantzita.

Ibilbide luzea baztertu eta laburra baino ez dute egingo aurten Aramotz mendi lasterketan

Kudeaketa errazteko hartu dute erabakia antolatzaileek; korrikalarien kopurua ere ohi baino murriztagoa izango da

MENDI LASTERKETA • J.DERTEANO

Egoera berrira moldatuta bada ere, Zornotzako Aramotz mendi lasterketak ez dio hutsik egingo urteroko hitzorduari, domeka honetan. Aldaketa nagusia da lasterketa bakarra egongo dela, 17 kilometrokoa, bi beharrean. 30 kilometrokoa, bietan luzeena, bertan behera utzi behar izan dute. Ekimenaren kudeaketa errazteko eta jende pilaketak saihesteko hartu dute erabakia. Hurrengo urteetan berriro ere lasterketa luzeagoa berreskuratzea da helburua.

Proba 09:00etan hasiko da, Zubiondo parketik. 1.000 metroko desnibel positiboa du eta Belatxikieta ingurutik eta Urtemondo gainetik igaroko dira, besteak beste.

Lehenengo, faboritoek irtengo dute, bana-banan eta 30 segundo-ko tartea utzita bata bestearengandik. Ondoren, gainerakoek irtengo dute, binaka.

Korrikalari gutxiago

Parte-hartzaile kopurua ohi baino murriztagoa izango da. Legez, 200 korrikalarik parte hartu zezaketen, baina 160ra murriztu dute kopurua. "Hasieran 100era mugatu genuen, baina dortsalak segituan amaitu ziren. Hori dela-eta, kopurua handitzea erabaki genuen, baina 200era heldu barik, jende pilaketak ahalik eta gehien ekiditeko.



Legez, 200 korrikalari hartu zitzaizkion antolatzaileek, baina 160ra mugatu dute kopurua, kontrolatzeko errazagoa izan dadin.

teko. Azkenean, 160 korrikalarik izango dute dortsala", azaldu du proba antolatzen duen Zornotza Mendi Taldeko Igor Lopez kideak.

Maila handia gizonetan

Maila handiko gizonak datoz lasterketara. Aritz Egea, Asier Larruzea eta Beñat Katarain nabarmendu daitezke, besteak beste, eta baita eskualdeko zenbait korrikalari ere: Julen Ozaeta eta Oier Ariznabarreta durangarrak, Ibon Etxebarria zornotzarra eta Gontzal Murgoitio

Gizonetan, Gontzal Murgoitio elorriarra irabazteko hautagaien artean dago

15 emakume egongo dira, inoiz baino gehiago. "Helburutik urrun gaude, baina beste pauso bat da"

elorriarra. Murgoitio Sorkinen lasterketa irabazi du oraintsu, erakustaldia emanda, eta irabazteko hautagaien artean dago.

Emakume kopurua, gorantz

Emakumezko parte-hartzaileak askoz ere gutxiago dira, 15 guztira, baina orain arteko kopururik handiena da. "Parekidetasunaren helburutik urrun gaude oraindino, baina beste pauso bat da", diote antolatzaileek. Irabazteko faboritoen artean, Eztizen Duque dago. Portu-

Iker Karrerak bere biografia liburua aurkeztuko du bihar

Urte bi joan dira Iker Karrerak (Amezketan, 1974) goi mailako lehiaketak utziko zituela iragarri zuenetik. Harrezkero, Iker Karrera. Bidea Ipar izeneko biografian ondu ditu ibilbide oparoko bizipen eta lorpenak zein mendiarekiko dituen ikuspegi eta gogoetak. Bihar, 17:00ean, Zelaia Zentroan izango da liburua aurkezten. Sarrerak agortuta daude.

Bere ibilbideko goiburuen artean daude 2013an irabazitako Tor Des Geants proba eta 2014ko Mont Blanc ultra traila. Bigarren amaitu zuen han.



galetearrak podiuma zapaldu zuen Sorkinen lasterketan, hirugarren tokian sailkatuta. Lau korrikalari Durangaldekoak dira: Aritz Villa abadiñarra, Inma Rafael eta Zutoia Odriozola elorriarrak eta Montse Morote otxandiarra.

Jende pilaketak eragozteko, lasterketako dortsalak korrikalarien etxera bidali dituzte aurten. Lasterketan, korrikalari bakoitzak bere janaria eta edaria eraman beharko ditu. Hala ere, hornidura puntuetan edateko aukera egongo da.

Jokaldia

Laino ilunak

Enpresak aspaldi honetan hartutako erabakien kontrako komunikatu bat publikatu zuen langile talde batek. Enpresaren erantzuna beste langile bat kalera-tzea izan zen. Horren ondorioz, langile taldeak erakunde publikoen laguntza eskatzen zuen bigarren idatzi bat argitaratu zuen. Baina handik hiru egunera enpresak laugarren langile bat kaleratu zuen. Enpresaren erasoen aurrean, langile taldeak 12 eguneko greba deialdi bat egin zuen. Enpresak, arriskua ikusita, bilera batera deitu zituen greban zeuden langileak. Bileratik akordiorik gabe irten ziren, ordea, eta langile taldeak grebarekin aurrera egitea erabaki zuen. Azkenik, enpresari greba eskubidearen urraketa egotzita sindikatuak epaitegira jo zuen.

Edozein lan gatazkaren ohiko kontakizun kronologikoa izan zitekeen honek



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Afera honek pilotarien lan baldintzen errealitatea erakutsi digu, eta usteak erdi ustelak zirela ikusi dugu

Laino ilunak ikusten dira esku pilotaren zeruan eta zaleak aurrez inoiz ikusi gabeko afrontuari begira gaude

badu berezitasun bat; esku pilotak ez duela inoiz bizi izan, greba egitera iritsi arte, hautsak harrotu dituen gatazkarik.

Esan bezala, esku pilota profesionala oso urruti zirudien "mobilizazio" edo "greba" kontzeptuetatik, baina azken urte eta erdi eskasean izan duen bilakaerak pilotarien susperraldia eragin du. Afera

honek, gainera, pilotarien lan baldintzen errealitatea erakutsi digu eta aurrez genituen usteak erdi ustelak zirela ikusi dugu. Besteak beste, pilotariak soldata altuak kobratzen zituztela pentsatzen genuenean, bestelako datuak argitaratu zituen pilotari taldeak. Bitxia da enpresak egoera ekonomikoaren aitzakian etorkizun handiko eta soldata baxuko kontratuak bertan behera uztea erabakitzea, etorkizunik gabeko eta soldata altuenetako kontratu bat berritzen duen bitartean. Hortaz, beharrezkoa zen pauso bat aurrera egitea pilotaren gainbeherari aurre egiteko.

Laino ilunak ikusten dira esku pilotaren zeruan eta pilotazaleak aurrez inoiz ikusi gabeko afrontuari begira gaude. Baina etorriko dira egun eguzkitsuak eta orduan bilduko dituzte etorkizuneko pilotariak gaur ereindako hazien fruitua.

DURANGALDE

Mikeldiko idoloa

Mikeldiko idoloaren erreplika hau Durangon dago, Mikeldin. Originala Bilboko Euskal Museoko klaustroan dago. II. Burdin Aroan datatuta dago (K.a V. eta I. mendeen bitartean) eta mesetako zezenen eta aketzen eskultura zoomorfoekin erlazionatu izan dute.



ANBOTOKO TXOKOAK ?



**Anbotoko mendilerroa
Sagastatik begiratuta**

Abadiñoko Sagasta auzoa leku bikaina da osteratxo egiteko. Aldapan gora joanda Anbotoren mendilerroaren ikuspegi eder hau aurkitu dezake bisitariak.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

SAN FAUSTO: 2 logela, (lehen 3), komuna eta sukaldea. C.E.E=G 125.000 €

IZURTZA: 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ganbara. Txakurrentzako txabola. C.E.E=G 80.000 €

ATXONDO: 85 m2. 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. 18m2-ko garajea. C.E.E=E 130.000 €.

IURRETA: 3 logela. Terraza. ESTREINATZEKO. C.E.E=E 97.500 €

MATIENA: Laubideta. 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. C.E.E=E Alokairuan erosteko aukeragaz. 600 € / 170.000 €

//ETXEBIZITZAK SALGAI

ANBOTO: 3 logela eta sukalde-egongela. Garaje itxia aukeran. C.E.E=F 160.000 €

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. C.E.E=F 198.000 €

ARAMOTZ: 3 logela, komun berria, sukaldea eta egongela. C.E.E=F 127.500 € negoziagarria

IURRETA: 3 solairu. Lorategiagaz. C.E.E=G 148.500 €.

MIKELDI: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E=E 160.000 €.

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitze baimenagaz. 250.000 €

IURRETA: Alokairuan, erosteko aukeragaz. 2 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. C.E.E=F 115.000 €

DURANGO: Santa Ana. PROMOZIO BERRIA. 1,2 eta 3 logelakoak. Komuna. Trastelekua aukeran. 170.000 €-tik aurrera.

MATIENA: J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. Trastelekua. C.E.E:E 145.000 €

ZEHARKALEA: ATIKOA. BERRIZTATUA. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=F 156.000 €.

EUBA: BERRIZTATUA. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. C.E.E=E 147.600 €.

IURRETA. 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m2-ko terraza. Trastelekua eta garajea. C.E.E=E 265.000 €

ALDE ZAHARRA. Etxebizitza altua. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta despentsa. Igogailua. Berriztatua. C.E.E=E 185.000 €

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. C.E.E=G 186.000 €.

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN

TRONPERRI: Garaje itxia. 21.000 €.

MENDIZABAL: Itxia. 24.000 €-tik aurrera.

ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.

ABADIÑO: 160 m2. Egokitua. Dena erakusleioa 2 kaletan. 175.000 €

F.J. de ZUMARRAGA: Aukera. 114 m2. SALMENTA. 150.000 €. Negoziagarria.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.

DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde klean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

IURRETA Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA - EUBA: Txale bifamiliarra eraikitze baimenagaz. 3.000 m2-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

MAÑARIA: Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrira berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€

ATXONDO: Baserririkusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserririkusgarria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze baimenagaz.

BERRIZ: Baserririkusgarria, Murgoitio zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

40 m2-tik gorako bulegoak. 350€-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango garaje itxiak salga, 25.000€-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 3 logela 62,2 m²

ARAMOTZ: Egongela, sukaldea eta komun berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran; 14.000 €.

127.500 €



DURANGO 4 logela 79,13 m²

ARAMOTZ: Egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Ezin hobea norberaren gustura egokitze baimenagaz.

115.000€



DURANGO 2 logela 67 m²

SASIKOA: Egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Argitsua. 3m2-ko ganbara eta 28 m2-ko garaje itxi bikoitza. Igogailua.

239.000 €



DURANGO 4 logela 95 m²

TRONPERRI: egongela, sukalde jantzia, despentsa eta 2 komun. Argitsua. Garajea eta ganbara. Terraza handia eta txoko komunitarioa. Igogailua.


258.000€



MATIENA 2 logela 51,9 m²

TXINURRISOLO: Saloia, sukaldea, egongela, sukaldea eta komuna. Erdia kanpora begira. Hobekuntza txikiak behar ditu. 9m2-ko ganbara.

99.000€



BERRIZ 3 logela 78 m²

GABIOLA: Komuna berriztatuta, egongela, eta sukalde jantzia. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Egoera onean.

140.000€

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. 320.000 €/E.E.E=E

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. LEHEN 205.000 € / ORAIN 198.000 €/ E.E.Z=E

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. 190.000 € / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. 220.000 € / E.E.Z=E

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. 238.000 €/ E.E.Z=E

SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz 600m2-ko lurzorua. 640.000 €

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 €/ E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € /ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E

URKIOLA AUZO: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. 285.000 €/ ORAIN 248.000 € / E.E.Z=E

//ATXONDO

3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. 160.000 €/ E.E.Z=G

//BERRIZ

Berrizbeitia kalea: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. 120.000 € / E.E.Z=F

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN 85.000 € / E.E.Z =E

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. 102.000 € / E.E.Z=E

MURGOITIO KALEA: Etxebizitza bitan banatutako baserrira lursailagaz. 290.000 €.

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN 168.000 €/ E.E.Z=F

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € /E.E.Z =E

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja 106.000 € / E.E.Z=F

ARTEKALE: 2 logela, sukaldea, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 75.000 €/ ORAIN 39.500 €/ E.E.Z=F

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN 160.000 € E.E.Z=Bidean

//BERRIAK

BARRENKALE KALEA: berreraikitze baimenagaz eraikina, sotoa eta 3 pisuko altuera. 350.000 €/ E.E.Z=F



Botikak	
BARIKUA, 16 09:00-09:00	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	GUTIERREZ, IBAN TXIKI Otaegi 3 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 17 09:00-09:00	MARTITZENA, 20 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-13:30	09:00-22:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 21 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 22 09:00-09:00
09:00-22:00	IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 18 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
ASTELEHENA 19 09:00-09:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak, **Paula Aldekoa-Otalora Seguro**. Urriaren 15ean 11 urte egin dozuz. Mosu potolo bat familia osoaren partez. Askoi maite zaitugu!

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Txomin (823. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Zorionak, potxolo! Oso ondo pasa eguna. Muxu potolo asko familia osoaren partez.

Zorionak gure txikitxoari! **Aroak** urriaren 20an 5 urte egiten ditu, uff gure neskatxoa handitzen doa. Ea denok batera ospatu ahal dugun. Zorionak, Aroa!

Eguraldia		
ZAPATUA 16° / 4° ☁	ASTELEHENA 19° / 12° ☁	EGUAZTENA 17° / 11° ☁
DOMEKA 18° / 6° ☁	MARTITZENA 17° / 13° ☁	EGUENA 14° / 8° ☁

MAKALLAU SALTAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

“Eskatu dizkidate lore exotikoak, landare karniboroak, esaterako”

Loreak oparitzea beti da aukera ona Jabi Beaskoetxearen ustez. Iurretan du haztegia eta, ahal den neurrian, bertan hazten ditu loreak. Gipuzkoako Dekolore elkarteko kidea da

Jabi Beskoetxea
Arrizabalaga
Ortuberri
Durango | 1971



IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bizimodua aldatzea erabaki zuen Jabi duela bost urte. Lantokia utzi eta lorak eta landareak hazi eta saltzen hasi zen. Egindako apostuagaz pozik dagoen arren, gogoan du hasiera ez zela erraza izan. COVID-19ak gogor kolpatu du negozioa orain, eta udaberrian du itxaropena jarrita. Hala ere, zalantza egoera oso handia bizi duela dio. Orain, neguko lorak ditu: ziklamenak, pentsamenduak, zuhaixkak...

Udazkenean sartuta, udaberrirako prestatzen hasten zarete lorezainak. Hori bai, COVID-19ak baldintzatuta. Guztiz baldintzatuta. Egoera ez da batere samurra, eta martxorako

normaltzen ez bada, urte beltza datorkigu. Aurten, udaberri sasoari ekiteko dena prest genuela etorri zen COVID-19a, martxoan, eta orduantxe amaitu zen urtea guretzat. Domu Santu Eguna dator orain. Sasoi ona izaten da saltzeko, Amaren Egunean lez. Hala ere, ea zelan doan dena. Osagarri moduan, baserri eta txaletetan lorategiak konpontzen edo sortzen ere lan egiten hasi naiz. Balkoietan ere bai. **Plazarik plaza ibiltzen zara loreak saltzen. Erosiko dugun loreak gure izaeraren arrastorik ematen du?** Loreak zein pertsona motak erosten dituen jakin genezake: izan liteke huts egitea, baina norbait hurbiltzen denean lorerik erosiko

duen ala ez jakin daiteke. Zein lore erosiko duen ere bai. Dena dela, pisu bateko balkoi batean ezingo dugu, adibidez, bugainbilea edo zuhaixka handi bat ipini. Horrek ere badu eragina. **Zein da lorerik arrakastatsuen?** Udaberrian, 2.000 geranio

“**Landare exotikoak garestiak dira, kondizio zehatz batzuetan hazi behar direlako**”

eduki genitzake negutegian, eta ia guztiak salduko dira plazan. Oso ondo saltzen da. Baina negutegira bertara datorrena berezia edo desberdina den lore edo landare baten bila dator normalean. Zenbat eta bereziagoak izan, orduan eta gura go jendeak, eta ez zaie ardura zenbat ordaindu. Kaktusak, adibidez. Kaktus sorta on eta oso polita ipini gura nuen aurten, baina ezin izan dut. Horrek inbertsio bat eskatzen du eta ezinezkoa egin zait.

Eskatzen dizute lore exotikorik?

Bai, landare karniboroak, esaterako. Baina etxean iraungo dieten denbora eta balio dutena entzundakoan, ez dute gura izaten. Landare exotikoak, gura klimara ohituta ez daudenak, garestiak dira, kondizio zehatz batzuetan hazi behar direlako. Eta euren klimatik aterata hil egiten dira.

Baduzu gogoan enkargu berezirik?

Domu Santu Egunerako eskatutako bat: kolore gorritz eta horiz egindako lore-zentroa. Bezero batzuek eskatutako kolore konbinazioak egin zaizkit deigarri, batez ere.

Baduzu lore jangarriak? Geroago eta gehiago zabaldu da balkoietan baratze txikiak sortzeko ohitura.

Lore jangarri gutxi daude: perrexila, menda, oreganoa, erromeroa... Belar jangarriak gehiago dira. Ondo saltzen dira, baina bizpahiru landaregaz nahikoa da. Balkoi batean loreak ipini gura badituzu, gehiago behar dira, 20-30 landare behintzat. Egia da etxean baratze txikiak sortzeko ohitura zabaldu dela, eta sasoi bada izaten dugu tomate landararen bat saltzeko. Baina oso gutxi. Aurten, gutxiago.

Emango dizkiguzu hiru gomendio loreak polito mantentzeko?

Eguzkitarako lorea bada, eguzkitan ipintzea; eta itzaletarako bada, itzaletan. Loreek lehorte apur bat pasatzea ere oso ona da, hezetasuna mantendu behar den arren. Eta, azkenik, ongarria ematea. Loreak lurra dituen nutriente guztiak jaten ditu bizpahiru hiletan, eta ongarriak eman ezean gosez hilko dira. **Zein da gehien gustatzen zaizuna?** Sasoiari sasoikoa ipintzea da onena. Eta lekua izanez gero, konposizioak egitea da nire gomendioa. Oso polito geratzen dira, beti dira deigarri.

Lauhortza

Bixente
Aizpurua Eguren
Irakaslea



Etxebizitza, arazo larria

Durungaldean, batez ere Elorrioren herriarrak estu eta larri dabilta alokatzeko etxe bila. Nahiz eta udaletxe gehienek bazter guztietara zabaldu ahalegin guztiak egiten edo egingo dituztela herriarren beharrei erantzuteko, alor honetan errealitatea beste bat da “astoaren puzkerra”.

Elorrioko inbiliarrietan jendea itxaroten dago alokatzeko etxe bat noiz azalduko. Elizako zerrendan 14 familia zain daude. Kasu bat baino gehiago ezagutzen dut non familiek, Elorrioren gustura egon arren beste herri batera alde egin behar izan dutenak hemen ez dagoena (etxebizitza) bilatzen edo Elorrioren etortzeko asmoa izan dutenak, arazo berdinagatik, etorri ezinik gelditu direnak. Arazo hau ez dute ikusten erakunde publikoek, udalek tarteko? Ezin dugu eta ezin dute ahaztu gizaki guztiok etxebizitza duin bat izateko eskubide guztia dugula. Etxabe komertzial asko daude hutsik, eta hauek etxebizitza bihurtuz zenbait etxe merkaturatuko lirateke eta memento honetan itsusi eta triste ikusten diren lokalek bizitza eta bizitasuna hartuko lukete, eta, gainera, oztopo arkitektonikorik gabe. Zergatik ez da eraikitzen babestutako etxebizitza publiko gehiago? 2011n onartutako HA-POren arabera bizitegi-eremuetan babes ofizialeko 140 etxebizitza berri daude onartuta eta 9 urte igaro arren ez da batere gauzatu. Gazte eta ez hain gazteek ez dute dirurik etxe bat erosteko, baina bai erretoa duin bat ordaintzeko.

Zenbait etxe erdi edo guztiz jausita daude, udalak jabea behartu egin dezake konpontzen, edo bestela desjabetu herriarren beharrezanetara jartzeko. Kritikak proposamenekin egin behar direnez, hemen badaude zenbait, eta ea orain Etxebizitza Saila eta udalak lanean hasten diren.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa